

4. BEZEROEKIN HARREMANA:

3 harreman mota ditugu, eros aurrekoa, eros bitartekoa eta eros ostekoa 3 atal hauek azalduko ditugu.

EROS AURREKOA

-**Arreta azkarra eta argia:** bezeroak deitzen edo idazten dutenean datuak zuzen eta arretaz entzungo ditugu, horrela konfiantza sortzeko.

- **Show room:** Daukagun lokalean, edukiko dugu espazio espezifiko bat bezeroak gure produktua probatzeko eta zuzenean ikusteko eta frogatzeko

-**3D diseinu pertsonalizatua:** bezeroak bere espazioan leihoa nola geratuko den ikusiko dute 3D disenu batekin. Honek segurtasuna eta argitasuna ematen dio erabakiari.

- **Informazio pertsonalizazioa edota automatizatua:** oinarrizko informazioa mezu automatizatuen bidez jasoko du, baina zalantza teknikoak pertsonalki argituko ditugu.

-**Promozioak:** Bezeroari adieraziko diogu promozioak ditugula, eta horrela haiek baloratu dezakete zer egin. (adibidez, erreformetan bigarren instalazioan deskontua edo bezero ohientzako abantailak).

EROS BITARTEKOA

- **Tramite azkarrak eta errazak:** eskaintza onartu ondoren paperak eta tramiteak modu automatizatuan egingo ditugu horrela bezeroak lanik egin beharrik gabe.

- **Etxeko azterketa zehatza:** instalazioa baino lehen gure teknikariek espazioa ondo begiratuko dute, neurrik eta beharrak zehazteko eta jakiteko.

- **Instalazio garbia eta arduratsua:** gure teknikariek arreta berezia jarriko dute etxea ez zikintzen eta dena ondo saintzen, lanaren ostean dena garbi utziko dute. Bezeroak ez da deseroso sentitu behar eta pozik egon behar da gure instalazioarekin.

- **Segurtasuna:** gure leihoak arriskurik ez izateko diseinatuta daude, eta instalazioa profesionalek egiten dute, horrela segurtasuna bermatuz.

EROS OSTEKOA

-**24 hilabeteko garantia:** instalazioan edo funtzionamenduan arazo bat sortzen bada, gure zerbitzu teknikoak doan konponduko du.

- **Bezeroaren jarraipena:** instalazioa amaitu eta egun batzuetara, bezeroarekin

harremanetan jarriko gara guztia ondo dagoela ziurtatzeko.

- **Bezero fidelitasuna**: hurrengo erosketetan edo instalazioan, deskontuak edo promozio bereziak eskainiko ditugu.

- **Laguntza teknikoa**: arazo txiki edo zalantza teknikoak dituen bezeroak arreta azkarra eta erraza jasoko dute.

- **Galdetegia** egin: